



kutxabank
hemen
eta orain





1 Kutxabank, hemen eta orain	04
2 Erantzun eraginkor eta seguruak	10
• etxea erosteko: Kutxabank Hipotekak	16
• errentagarritasun handienarekin aurrezteko:	18
Fondoak eta Zorroak, Banka Pertsonala	
• autoz aldatzeko: Mailegu Pertsonalak	20
• etorkizunerako planak egiteko:	22
Baskepensiones eta Planak	
• lasai bizitzeko: Kutxabank Aseguruak	23
• enpresetarako: Kutxabank Enpresak	24
• saltoki eta negozioetarako: Negozio Plana	26
• gazteenentzat: Kutxabank Korner	28
• Gizarte Ekintza sustatzen jarraitzeko	30
3 Kutxabank beti eskura	32
3.1 Edonon eta edonoiz	34
3.2 Kutxazainak	38
3.3 Online Banka	39
3.4 Banka mugikorra	40
3.5 Ordainketak mugikorretik	41
3.6 Sare Sozialak	42
4 Gai berriak	44
• 2015eko emaitzak.	46
Kutxabank, erakunderik kaudimentsuena	
• finantza-erreskateaz	56



Gaur egun Estatuko **erakunde kaudimentsuena** gara.

Azken urteetako estres-testek hala egiaztatu dute. Ez dugu herri-erakundeetatik diru-laguntzarik jaso 2009 eta 2015 bitartean banka-sistema berregituratzeko burututako prozesuan.

100 urte baino gehiago eman ditugu pertsonek aldeko lanean, haien finantza- beharrizanei erantzuten eta **eguneroko** **kontu** garrantzitsuekin konpromisoa erakusten.

Bezeroak kudeatzen ditugu, ez produktuak. Gure bezeroen aurrezkiak kudeatzen ditugu, gureak ez direla jakinda. Horregatik gara Estatuko 4. Fondo Kudeatzailea eta aurreikuspeneko banakako Euskadiko sistemaren Lehenengo BGAEa. Gure bezeroak ezagutzen ditugunez, maileguak zuzenean eskura ditzaketen milioi 1 bezero baino gehiago dauzkagu sailkatuta.

BBK, Vital eta Kutxa Fundazioen bitartez, sortzen ditugun etekinen zati handia **gizarte-ekintza** bilakatzen da.

2016rako, Kutxabankek 109,4 milioi euro bideratuko ditu gizarte-ekintzara. Hain zuzen ere, hura da Estatuko finantza-sistemaren gizarte-dibidendu handiena, tamainaren arabera.

Ikuspegi orokorra

Hipoteka-merkatuaren liderrak gara Euskadin **merkatu-kuotaren %43,4rekin**

%43,6 baino gehiago bideratu dugu **etxebizitza berrien erosketa finantzatzera**

250.000 bider jaitsi da Kutzabankeko app-a

Inbertsio-fondoak **%15 inguru hazi dira**

Enpresa Txiki eta Ertainen finantzaketan 2.000 milioi euro inbertitu dira

Aurrezki-kutxak batu zirenetik, **Kutzabank Gestione** **Fondo** **Ondarea bikoiztea** lortu du, **merkatu-kuotan hazkunderik handiena izandako Estatuko** **sozietate** kudeatzaile bilakatuta

2015ean, **218 milioiko** etekinak izan ditugu. 2014an **baino %45 gehiago**

Bezeroei eskainitako zerbitzuen bidezko komisioak **%11,8 murriztu dira** eta bezeroen marjina **%0,9 hazi da**

Kontsumorako maileguetan **%14,7ko gehikuntza** egon da

Iturria: 2016ko urtarrileraino izandako emaitzekin Kutzabankek prestatutako datuak.



Zer egin dezakegu?


Epe luzerako harremanak sustatzen ditugu, gure bezeroengandik gertu egotean oinarrituta.

Gure xedea **bizitzaren etapa bakoitzean sortzen diren finantza-beharrizanetarako NEURRIKO soluzioak bilatzea da**. Hasieratik.

Gure lanaren arrakasta, bezero bakoitzarentzako soluzio egokiena bilatzeko dugun gaitasunaren araberakoa da.

Kutxabank hurbil izatea onuragarria da, finantzazioan eta aurrezkian beti zerbitzurik onena ematen dugula ziur gaudelako, profesionaltasunez, bizkortasunez eta seriotasunez.

ALDEZ AURRETIK EMANDAKO EFEKTIBOIA



K ETXEBIZITZA ZERBITZUA GURE BEZEROENTZAKO SEGURTASUN JURIDIKOA:

- Kontratua eta egon daitezkeen kargak aztertzea eta izenpetzean laguntzea
- Etxebizitza erregistroan inskribatzea LAGUNDU "ZENBAKIAK EGITEN"
- Fiskalitatea eta zerga-arinketa
- Erosketaren gastuak, hileko kuotak, etab. kalkulatu ditugu

MAILEGU PERTSONALAK ETA KUTXABANK EFEKTIBOIA

1,4 milioi bezerok alde aurretik emandako mailegu dute eta, gainera, Online Bankaren bitartez berehala formalizatzen aukera dute.

K26 ETA K26+ Abantailak, deskontuak, erraztasunak...

Abantailak, deskontuak, erraztasunak...

GAZTEDI PLANA Aurrezkie sariekin, jarduerekin, zozketekin...

Aurrezkie sariekin, jarduerekin, zozketekin...

PENSIO PLANAK ETA BASKE-PENSIONES

Aurreikuspenaren alorrean Euskadiko lehenengo erakundea.

KUDEAKETA AKTIBOKO FONDOAK ETA FONDOEN ZORRO DELEGATUAK

100.000 bezerok baino gehiagok kudeaketa pertsonalizatu eta hurbilekoa aukeratu dute, konfiantzan eta emaitza onetan oinarrituta.

ETXEBIZITZA, BIZI, AUTO ETA OSASUN ASEGURUAKD

Akordioak aseguru-etxe onenekin. Lasaitasuna gure bezeroentzat eta geuretzat.



Etxebizitza bat erosteko.

Adituak gara

HIPOTEKATAN.

Merkatuko lehenengoak gara.

Jende guztiarentzako denetariko hipotekak ditugu: finkoak, aldakorrak eta mistoak.

Gure prezioak ehiakorrenetakoak dira eta herri-erakundeekin ditugun hitzarmen garrantzitsuek gauzak ondo egiten dugula frogatzen dute.

- 2015ean, Kutxabank **Euribor +1 hipoteka** plazaratu zuen lehenengo erakundea izan zen.
- **%2,50 ITNeko Kutxabankeko Hipoteka Finkoa** merkatuko lehiakorrena da eta 30 urterainoko epean baldintzei eusten die.
- **Emandako maileguen** zenbatekoa **%43,4 handitu da**, batez ere jende gazteenaren artean.
- Kutxabankek bere posizioa finkatu du **Euskadiko merkatuko lider** gisa, hipoteka malguenekin, bai epean, bai prezioan.
- 2016an, gure hipoteka-eskaintza zabaldu da: **Tasa finkoa %2,50, Tasa aldakorra Euriborra + %0,90, Tasa mistoa:** Finkoa %1,80an lehenengo 10 urteetan. Eta aldakorra + %0,90 epearen gainerakoa.
- **Hipoteka-merkatuaren liderrak gara Euskadin**, merkatu-kuotaren %32rekin.
- **Etxebizitza berriaren erosketaren finantzazioa %43,6 handitu da** 2015ean.

LA RIOJA HIPOTEKA

Gazteei Etxebizitza eskuratzea sustatzeko Errioxako Gobernuarekin egindako hitzarmena. Gazteentzako prezio eta baldintza bereziekin.

CIUTAT DE VALENCIA GAZTE PLANA

Kutxabank Planari atxikitzea.

GAZTE HIPOTEKA -%0,25

35 urte bete arte abantailak dakartzan prezioa. Erraztasunak gazteenentzat.

kutxabank

Errentagarritasun handiagoaren bila.

KUDEAKETA AKTIBOKO FONDOAK ETA FONDOEN ZORRO DELEGATUAK.

Aurrezki-kutxak 2011n batu zirenetik, Fondoetako Ondarea bikoiztu dugu.

2015ean, Inbertsio Fondoan bolumena %15 inguru hazi da Kutxabanken.

Kudeaketa Aktiboko Fondoan edo Fondoan Zorro Delegatuaren ezaugarriak:

- Inbertsio osoa edo haren zati bat erabili ahal izatea
- Gardentasuna
- Traspasoak kosturik gabe
- Hilean behingo txostena
- Malgutasuna
- Dibertsifikazioa
- Bezero bakoitzaren arrisku-profilaren arabera

Kutxabank Gestio-eko arrakasta haien inbertsioak guregan delegatzen duten bezeroak ezagutzeko eta laguntzeko oinarritzen da. Hurbileko harreman horrek horietako bakoitzaren arrisku-profilari eta bizitzaren sasoi zehatzari egokitzeko aukera ematen digu, merkatuak nazioartean eskainitako aukerak baliatuta. Horregaitik, 100.000 bezero bakoitzari gehiagok beraien aurrezkiak Kudeaketa Aktiboko Fondoetan eta Fondoan Zorro Delegatueta dituzte.

Konfidantzazko erlazioak

KUTXABANK BANKA PERTSONALA

- 53.742 bezero kudeatuak. Banka Pertsonaleko bezeroei egindako azken inkestaren arabera, 10etik 4k aktiboki gomendatzen dute Kutxabankeko Banka Pertsonal zerbitzua
- Poztasun indizea 4,2 da (1etik 5erarteko eskala baten)
- Banka Pertsonaleko bezeroen Fondoan Zorro delegatueta inbertsioa %67,06 gehitu da.

KUTXABANK MAILEGU PERTSONALAK ETA EFEKTIBOA

Kutxabanken, 1,4 milioi bezerok baino gehiagok aldeztu aurretik emandako mailegua dute behar dutenerako. Azkarra, paperetan galdu gabe. 1.500 eta 40.000 € artekoa. Telefonoz eta online kontrata daitezke. Berehala.

Berehalako erantzuna edozein ustekabetarako.

Bizkorrak, eskuratzeko errazak eta baldintza onuragarriekin.

180 milioi euro mailegu pertsonaletan, 2014an baino %15 gehiago.




- **24.500 milioi euro aurrez emandako maileguetan.**
- 2015eko udan, **Mailegu OSO Pertsonalen** Kutxabankek **kanpainak %30erainoko deskontua** eskaini zuen Kutxabank **Efektiboan.**
- Interneten bidezko **kontratazioa %110 (9MM euro) hazi zen.**
- **Mailegu pertsonal guztien %7a online** kontratatzen da.
- **2015eko AUTO MAILEGUA** plana ibilgailuen erosketarako finantzatzeko **merkatuko modalitate**rik **lehiakorrena izan da.** Gazteentzako aparteko abantailekin.

Online Bankaren bidez 9 milioi euro bideratu dira. %70a, Kutxabank fektiboetarako.

Etorkizunean pentsatzeko.
**BASKEPENSIONES
 ETA PENTSIÓ PLANAK.**
 Euskadin banakako
 aurreikuspeneko lehenengo
 erakundea gara, hain zuzen
 ere, Estatuan etorkizuneko
 plan-kopuru handiena duen
 Autonomia Erkidegoan.

Kutxabaneko
 etorkizunerako Planak
 erretirorako aurrezkiak
 inbertsio errentagarri
 bihurtzeko biderik
 onena dira, bezeroen
 arrisku-profilen eta
 bizi-zikloen ezaugarriei
 egokituta.




BIZI, OSASUN, ETXEBIZITZA ETA AUTO ASEGURUAK.

Hitzarmenak egin ditugu aseguru-etxe nabarmenekin gure
 bezeroak babestuta eta seguru senti daitezen. Eta gu ere bai.

Ezbeharrei azkar eta eraginkor erantzuteko, besteak beste, Bermeo
 eta Pasaiaiko suteei (2013-2014) edo Ondarroako duela gutxiko
 lur-jotzeari, Kutxabankek aholku eta laguntza sakona eskaintzen
 du, bai eta kalte-ordainak kudeatzeko baliabideak ere:


- Kutxabank bezeroentzako protokolo bereziak
- beharrezkoa bada, lanabesak eta etxeko oinarrizko tresneriar
- bilera pertsonalizatuak asegurudunekin
- berehala ordaindu zitzairen hurrengo beharrianak izan zituzten
 bezeroei: beste etxebizitza batera joatea; arropa; lehenengo
 atentzioak...
- kalte-ordainen likidazioa bezero bakoitzak ezarritako
 beharrianaren arabera

Lorcako 2011ko lurrikaran, besteek ez bezala, gure erakundearen
 bezero ziren 200 kaltetunek kalte-ordainaren %100 jaso zuten.
 Gainerako kasuetan, haien kalte-ordaina konpainia bakoitzaren
 polizen aseguru-mailaren arabera izan zen.



Enpresentzat

15.000 enpresa baino gehiagok konfiantza dute Kutxabanken.



Merkataritzarako

Kutxabank Saltegietarako Plana.

7.725
saltokik
kontratatu dute
Kutxabank Negozio
Kontu berria

486
saltegi berrik
eskaintzen diete **Kutxabank
Saltegi Kreditua** haien bezeroei.
Dagoeneko badira 2.000 baino
gehiago kreditua ematen
duten saltegiak:

- %0ko interesean
- komisiorik gabe
- epe erosoetan
- azkarra eta paperik egin gabe

1.048
saltegiak
kontratatu dute
Kutxabankeko
Arrisku anitzetarako
asegurua

2.224
saltegi berrik
bat egin dute Kutxabankeko
zerbitzuarekin

DENDA

**KONTSUMOA
BERRINDARTU +
MERKATARITZA
TXIKIA
SUSTATZEA.
ABANTAILAK,
AHOLKULARITZA,
FINANTZAZIOA
ETA ETENGABEKO
JARRAIPENA DITU**

3.041
TPV
instalatuta,
Contactless
bezalako
funtzionalitate
berrieekin

Merkataritza segmentuan bezeroak erakartzea eta mantentzea helburu estrategikoa da Kutxabankentzat. Gure lurraldearen susperraldiaren eta hazkunde ekonomikoaren protagonistak gara eta badakigu hura lortzeko kontsumoa berpiztea eta merkataritza sustatzea funtsezkoa dela.

2015ean, Kutxabank Saltegi Plana abian jarri genuen eta oraindik indarrean dago. Ekintza-plan honek, bereziki, saltegiekin harreman estuagoa izatea nahi du.

Eskaintza oso lehiakor hau 5 zutabe nagusitan egituratuta dago:

- Elkartruke-tarifa eta -tasa lehiakorrak.
- Kutxabank negozio-kontua.
- Saltegi-kreditua. Kutxabank Kredit.
- Saltegi-asegurua.



Gazteenekin

KUTXABANK KORNER


Kutxabankeko espazio gaztea da. Bertan, gazteei kezkatzen zaizkien edo haien interesekoak diren gai guztientzako lekua dago eta haientzat soilik pentsatutako produktu eta zerbitzuak daude.

- Komisionik gabeko kontuak
- K26 txartela komisionik gabe
- Atzerrian dirua ateratzea euro bakar baten truke.
- Doako Kutxabank stickerra
- Gazte-nomina kontua
- Gazte-hipoteka
- Finantzazioa: ikasteko, autoa erosteko, bidaiatzeko...
- Etorkizunerako aurrezki-planak
- Edonondik eta edonoz, beti ONLINE konektatuta
- Urtebetetze-kanpaina, urteak betetzen dituzten gazteenentzat esperientziak oparituta
- K26 eta K26+ txartelen titularrentzat deskontu eta sustapen onenak hemen: www.kutxabankplus.eus



KUTXABANK
KORNER



ESPACIO
18/30
ESPAZIOA



Gizarte-ekintza sustatzen jarraitzeko

Etekinen %50a Gizarte Ekintzetarako.

Kutxabanken egoera onari esker, emaitzetan dibidenduen banaketa %30etik %50era handitu du. Hala, Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusiari guztira **109,4 milioi euroko** dibidendua banatzea proposatu dio, 2014ko kopurua baino ia bi aldi eta erdiz handiagoa. Tamainaren arabera sistemako gizarte-dibidendurik handiena eta termino absolutuetan handienetakoa da, **Kutxabanken** akziodunak diren banku-fundazioen **Gizarte Ekintzarekin duen konpromisoaren** isla.









3.1 Edonon eta edonoiz, Kutzabankekin ON zaude!

Eragiketen %80a Kutzabankeko kanal teknologikoen bidez egiten dira.

Online eragiketetan segurtasuna handitzeko asmoz, Kutzabankek Europako Banku Zentralaren eta Securepay protokoloaren segurtasuneko gomendioak ezartzen ditu.



*18.000 kutxazaineko sarea dago erabilgarri Hedapeneko bezeroentzat (Kutzabank/Cajasur, Euro6000, Bankia eta Sabadell)

kutzabank

	Guztira	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Espantsio sarea	CajaSur
BULEGOAK	1.013	207	129	77	242	358
KUTXAZAINAK	2.043	656	506	197	261*	423
EGUNERAGAILUAK	709	227	184	97	14	187
OROTARAKO KUTXAZAINAK	154	138		3	13	

ZER EGIN DEZAKETE GURE BEZEROEK KANAL BAKOITZEAN?

Produktua	Eragiketa	Online Banka	Banka Mugikorra	Telefono bidezko Banka	Kutzazaina
Kontuak	Efektiboa sartu/Atera				•
	Laburpena/Ikuspegi orokorra	•	•	•	
	Ikusi/Kontsultak	•	•	•	•
	Estatu barruko transferentziak	•	•	•	•
	Atzerriko transferentziak	•		•	
	Transferentziak ezeztatzea			•	
	Kontratazioa	•			
Txartelak	Kontsultak	•	•	•	•
	Aktibazioa	•	•	•	•
	Mugen aldaketa			•	
	Blokeoa	•	•	•	
	Zordunketa/Abonua	•	•	•	•
Ordainagiriak	Kontsultak	•		•	
	Ordainketa	•		•	•
	Itzulketa	•	•	•	
Gordailuak	Kontsultak	•	•	•	
	Kontratazioa/Kitapenak	•			
Inbertsio Fondoak	Kontsultak	•	•	•	
	Harpidetza/Diru-itzulketa	•		•	
	Kontratazioa	•			
BGAE/ Pentsio-planak	Kontsultak	•	•	•	
	Ekarpenak	•		•	
	Kontratazioa	•			
	Erretiro-simulagailua	•	•		
Aseguruak	Kontsultak	•	•	•	
	Kontratazioa	•			

Produktua	Eragiketa	Online Banka	Banka Mugikorra	Telefono bidezko Banka	Kutzazaina
Maileguak/ Hipotekak	Kontsultak	•	•	•	•
	Amortizazioa	•		•	
	Kontratazioa	•		•	
Baloreak	Kontsultak	•	•	•	•
	Salerosketa	•	•	•	
	Kontuaren kontratazioa	•			
Beste zerbitzu batzuk	Online korrespondentzia	•			
	Alertak	•		•	
	Kudeatzailearen kontaktua	•	•		
	Mugikorra hornitzea	•	•	•	•
	Saltegien kudeaketa	•		•	
Online Banka Kontratazioa	Kontratazioa	•			
	Gakoen aldaketa	•		•	•
Datu pertsonalak	Telefono mugikorra jakinaraztea				•
	Familiaren kontabilitatea kontsultatzea	•			

2015ean MULTIKANALITATEKO hurrengo SOLUZIOAK finkatu ziren:

- Banka mugikorrera sartzeko erraztasunak eta txartelen eragiketak egiteko era zabaltzea (aktibatzea, stickerraren PINa)
- Online kontsumoko maileguak bezero-kopuru handiagarako
- Bulego eta kutxazainen bilagailu berria
- Online Bankaren eragiketa berriak: SEPAk, stop loss-a, fondoeren diru-itzulketa, B2B agindua
- Planak: erretiroaren eta errentagarritasun historikoen simulagailua
- Interneten bidezko ordainketen segurtasunari buruzko Europako Securepay araudia ezartzea
- TBanka Pertsonalaren bezeroentzako telefono berezia

3.2 Kutxazainak.

- 1.359 kutxazain EAEn.
- 261 kutxazain Estatuko gainerako lurraldeetan.
- 423 kutxazain CajaSur sarean.
- 18.000 kutxazain Euro6000 sarean.

● **Diru-ateratzeak.** Zordunketan eta kredituan. Contactless diru-ateratzeak txarteletarako eta stickerrarako gailua duten kutxazainetan.

● **Ordainagiri eta zergen ordainketa.** Barra-kodearen irakurgailuaren bidez edo erreferentzia teklatuta.

● **Eragiketak ikusi.** Kontuen saldoak eta laburpenak, txartelak, maileguak, baloreak, gertuen dauden kutxazainak, etab.

● **Traspasoak.** Kutxabaneko kontuen artean, kontu propioen artean edo beste bezero baten kontura.

● **Abonua.** Kutxabaneko txarteletara.


● **Transferentziak.** Beste erakunde batzuen kontuetara, ukituzko pantaila duten kutxazainetan.

● **Transferentziak zure herrialdera.** Dirua bidaltzea.

● **Kreditua-24.** Kreditua berehala edukitzea.

● **Berehalako diru-sarrera.** Billeteak dirua sartzeko kutxazainetan, norbere kontuan edo beste bezero baten kontuan.

● **Mugi, Bat eta Barik txartelak.** Garraio-txartelen hornidura eta kontsulta contactless gailua duten kutxazainetan.



● Aurre-ordainketako mugikorra **hornitzea.**

● **Libreta** eguneratzea.

● Taloitegia **eskatzeta.**

● Hizkuntza **aldatzea**, isilpeko zenbakia, mugikor nagusia, krediturako ordainketako modalitatea eta abar.

● **Sarrerak.** Orotarako kutxazainetan erostea eta jasotzea.

● **Sarien ordainketa.** RETA-Ekasa txartelak.

3.3 Online Banka.

- Kutxabaneko bezeroen %60ak Online Bankako kontratua dute
- %30arentzat lehentasunezko kanala da
- Hilean 3 milioi konexio baino gehiago
- 2015ean %110 handitu zen online egindako mailegu pertsonalen kontratazioa
- Traspasoen eta transferentzien %71,5a Online Bankaren bidez giten dira
- 447.000 bezerok baino gehiagok Banka Elektronikoa erabilgarri dute

● **Gakoen aldaketa.**

● Gure produktu eta zerbitzu guztiak **ikusi.** (Kontuak, txartelak, ordainagiriak, gordailuak, inbertsio-fondoak, BGAE eta pentsio-planak, maileguak eta hipotekak, baloreak, aseguruak).

● **Kontratazioa** (Kontuak, gordailuak, inbertsio-fondoak, BGAEak eta pentsio-planak, maileguak, baloreen kontuak, aseguruak).

● Gordailu eta fondoan **ezeztapena.**

● Kontuen **Laburpena/ Ikuspegi orokorra.**

● Estatu barruko eta atzerriko **transferentziak.** Aldizkako transferentziak.

● Txartelak **aktibatzea eta blokeatzea**

● Txartelen **zordunketak eta abonua.**

● **Ordainagiri**en ordainketa eta itzulketa.

● **Inbertsio-fondoak** harpidetzea eta itzultzea.

● BGAEen eta pentsio-planen **ekarpena.**

● Mailegu eta hipoteken **amortizazioa.**

● **Baloreen** salerosketa.

● **Korrespondentzia elektronikoa.**

● **Alertak.**

● Kudeatzailearekiko **hitzordua.**

● Mugikorra hornitzea.

● **Saltegien kudeaketa.**



Online banka al daukazu? Eta korrespondentzia elektronikorik?






Kutxabaneko APP-a erabiltzen al duzu?

3.4 Banka mugikorra.

- Banku-gestioak esku-eskura: Android App-a, iOS edo web mugikorra
- 175.000 erabiltzaile 2015ean
- APP-a 250.000 bider jaitsi da
- Webgunerako sarrera guztien %33a mugikorretik egiten da



- Gure produktu eta zerbitzu guztiak **ikusi**.
- Kontuen **ikuspegi orokorra**.
- Estatu barruko **transferentziak**.
- Txartelak **aktibatzea eta blokeatzea**.
- Txartelen **zordunketak eta abonua**.
- **Ordainagirien** itzulketa.
- **Baloreen** salerosketa.
- **Kudeatzailearekin** kontaktatzeko.
- Mugikorra hornitzea.

3.5 Mugikorren bidezko ordainketak.



iupay probatu al duzu?

Orain ez duzu zure txartelen daturik eman behar online erosi nahi duzunean. Ordaindu **iupay**-ren bidez, besterik gabe, bankako online txartela. Segurua. Erraza. Azkarra.

Ba al dakizu nola dabilen? Begiratu hemen

1. Kutxabaneko online bankan alta egin
2. Lotutako txartelak konfiguratu
3. Ordaindu zure erosketak online



2016an **WALLET Kutxabank** diru-zorroa plazaratuko dugu. Haren bidez ordainketa elektronikorako eta mugikorraren bidez ordaintzeko soluzio guztiak batuko dira:

- **Partikularren arteko** ordainketak, mugikorraren bidez, edozein erakundetik, kontutik kontura
- **Saltegi fisikoan** ordaintzea, bezeroaren mugikorra txartel modura erabiltzaile edo kontutik konturako berehalako ordainketaren bitartez.
- Ordaindu **saltegi elektronikoan**, txartel birtualaren bidez edo kontutik konturako berehalako ordainketaren bidez, iupay-z gain.





Sare Sozialetako gure orrialdeetako baten jarraitzailea al zara?

3.6 Sare Sozialak.

Ongi etorri gure online kanaletara



Argazkiak, bideoak, lehiaketak eta Partekatutako esperientziak.



Kutxabank minutuz minutu.



Gure alderdi enpresarialena.



Oroitzapen bat, irudi bat.

land^k

Mendizale, hona hemen zure lekua.



- **Estatuko 5. finantza-erakundea gara** jarraitzaile-kopuruari dagokionez.
- **13 profil** sare sozialetan **800 argitalpenekin**, bataz beste.
- **50 jarduera** baino gehiago eta **10.000 parte-hartzaile**.
- Partekatutako **40 infografia** baino gehiago.
- Bataz beste, hilean **20.000 erabiltzaile Facebooken** eta, bataz beste, **150.000 inpresio Twitter-en**.
- **Twitter-en martxotik abendura hazkunderik handiena izan duen** finantza-erakundea eta bigarrena 2015eko ekainean nahiz uztailen.
- **Galderen %100ari erantzuten diogu**.
- Kutxabankek Sare Sozialetan duen irudiaren monitorizazioa.



1. 2015EKO EMAITZAK.

KUTXABANKEK 218,8 MILIOI EUROKO ETEKINAREKIN ITXI DU 2015EKO EKITALDIA, 2014AN BAINO %45,5 GEHIAGO.

[PRENTSA OHARRA. KUTXABANK. 2016/02/27]

- Emaizta hauek bankako marjina errepikariak %24ko hobekuntza izan duela erakusten dute
- Finantza-posizio sendoari esker etekinaren %50a gizarte-arlorara bidera dezakegu, hain zuzen ere, 109,4 milioi euro
- Zalantzazko aktiboaren saldoa 1.000 milioi eurotan baino gehiagotan jaitsi da eta berandutza-tasa %8,65era jaitsi da, sektoreko bataz bestekoa (%10,1) baino askoz gutxiago
- Kaudimenaren alorrean lehenengoa da, izan ere, Core Tier I indizea %14,6an dago eta Core Capital I 'fully loaded' indizea %14,3koa da
- Zuzkidurak, 479,3 milioi dira, aurreko urtean baino %17,7 gehiago

Kutxabank taldeak 218,8 milioi euroko **etekinekin amaitu** du 2015, aurreko ekitaldian baino %45,5 gehiago lortuta. Halaber, **CajaSur Taldeak** 13,3 milioi euroko etekinak eman ditu. Emaizta hori, adierazle **makro-ekonomikoen hobekuntzaren barruan** lortu da, baina bankako negozioa kaltetzen **duten faktoreak egonda**, esate baterako, merkatuko interes-tasa oso txikiak, dagoeneko zero kotan.

Jarduera zigortzen duten faktore horiek egon arren, azken emaitzaren hobekuntza, marjinen kudeaketa onean, komisioen ekarpen handiagoan eta fondoetan nahiz pentsio-planetan kudeatutako bolumenaren gehikuntzan oinarritu da. Gainera, kostuak murrizteko eta arriskuei lotutako aldagaiak hobetzeko politika lagungarri suertatu da.

Aipatutako palankei **higiezinaren merkatuaren bilakaera hobea** eta **kredituaren eskari kaudimentsua** suspertu izana gehitu behar zaizkie, **partaidetuen zorroa baloretan jartzearen bidezko** ekarpenarekin batera.

Kutxabankek 2015ean izandako emaitza ona negozio-eredu eta posizionamendu sendoen ondorioz etorri da, arrisku-profil apalean eta **kaudimenaren nahiz likideziaren egoera onean oinarrituta**, Europako Bankako Agintaritzak burututako gardentasuneko ariketak berretsia. Horren arabera, Euskal banku-taldea Espainiako finantza-sektoreko buruan kokatuta, kaudimenari dagokionez.

Hala, Kutxabankek bete egin ditu **Negozioa Garatzeko Planean ezarritako helburu nagusiak**, uztailean onartutako erakundearen Negozioa Garatzeko Planean ezarritakoak. Horretan zehaztu dira **2015-2019 aldirako** kudeaketaren helburuak, lau jarduera-ildo nagusiekin: hazkunde, errentagarritasuna eta bezeroak; non-core negozioen tamaina aldatzea; eraldakuntza eta eraginkortasuna; eta kudeaketa-ereduaren bilakaera.

Horrek guzti horrek Kutxabanki 479,3 milioi euroko zuzkidurak egiteko aukera eman dio, aurreko urtean baino %17,7 gehiago. Gainera, BBK, Kutxa eta Vital fundazioetarako ekarpena bikoitza baino gehiago handitu da.

Kutxabankek
negozio-eredu eta
posizionamendu
sendoak ditu,
kaudimen eta likidezia
nabarmenekin

INTERESEN MARJINAK BERE HARTAN DIRAU, TASAK MINIMOETAN IBILI ARREN

2015eko finantza egoera markatu duen gauza garrantzitsuenetariko bat, **interes tasa murriztuen** jarraipena izan da. Izan ere, urtean zehar minimo historikoetara heldu da, **zerotik hurbil**. Urte baterako Euriborra abenduan %0,059 izan zen, urteko bataz bestekoa %0,168an kokatuta, 2014ko bataz bestekoa baino oinarrizko 31 puntu baino gutxiago.

Jaitsiera hori egon arren, Kutxabank Taldeak **Interesen Marjinari** eustea lortu du, **618,9 milioi** eurotan kokatuta, aurreko urtean baino %0,3 gutxiago soilik. Tasen murrizketari aurre egiteko palanka nagusia

pasiboko prezioen kudeaketa aktiboa izan da; hala, negozio-sailetan gordailu berriak sortzearen kostua etengabe hobetu da, oinarrizko 42 puntutan murriztuta. Jaitsiera progresibo horren ondorioz, **finantza-gastuak gero eta txikiagoak izan dira modu nabarmenean**, 2014ko abenduarekin alderatuta, %38,2 gutxiago.

Zerbitzuen edo komisioen **bidezko diru-sarrerek** hazten jarraitu dute eta guztira 356,3 milioi eurokoak izan dira, aurreko urteko aldirian baino %3,1 gehiago. Aurreko hiruhilekoetan bezala, eta produktu ez-finantzario berriak merkaturatzeak ekarritako emaitza onak alde batera

utzita, **inbertsio-fondoetan eta pentsioetan** kudeatutako bolumenak handitzea izan da hazkundea gehienbat bultzatu duen faktorea. Horretarako, pasiboko saldoak balantzetik kanpoko produktuetara zuzentzea ere lagungarria izan da errentagarritasuna handitzeko bidean.

Bezeroen Marjina
%0,9 handitzeak
bankako oinarrizko
jardueraren
ekarpena hobetu dela
erakusten du

Kutxabanke lotura-kontuen eta elkartruke-tasarengatiko komisioak murriztearen bidez, nabarmen gutxitu da bezeroek komisioetan ordaindu beharrekoa. Horrekin guztiarekin, **Bezeroen Marjina** 975,18 milioi eurokoa da, %0,9ko hazkundea izanda. Horrek adierazten digunez, bankako oinarrizko jardueraren ekarpena hobetu da.

KUTXABANK TALDEKO EMAITZAK 2015EKO ABENDUA

Milioi eurotan	2015	2014	Δ%
Interesen Marjina	618,9	620,6	(0,3)
Komisio Garbiak	356,3	345,6	3,1
Bezeroen Marjina	975,2	966,2	0,9
Partaidetuen Etekinak	91,8	109,3	(16,0)
Salmenten eta Finantza-eragiketen Emaitzak	283,9	111,6	154,4
Ustiapeneko Beste Emaitza batzuk	31,7	64,7	(51,1)
Bezeroen eta Partaidetuen Marjinak	1.382,5	1.251,7	10,4
Administrazio Gastuak	(692,9)	(693,9)	(0,1)
Amortizazioak	(56,0)	(78,0)	(28,2)
Marjina Hornidurak baino lehen	633,6	479,9	32,0
Finantza Aktiboen eta Beste Hornidura batzuen Narriadura	(479,3)	(407,3)	17,7
Beste emaitza batzuk	50,0	74,1	(32,6)
Zergen aurreko emaitza	204,3	146,7	39,3
Taldearen emaitza	218,8	150,3	45,5

ZUZKIDURAK 479,3 MILIOI EUROKOAK IZAN DIRA, ORAINDIK ZUHURTZIA HANDIENeko MAILETAN

Taldeko **ustiapen-gastuak** murrizteko joerari eutsi diogu, %3 gutxituta. Emaizta honek kostuak gutxitzeko eta baliabideak hobeto erabiltzeko politika eraginkorra izan dela erakusten du.

Horrekin, **bankako marjina errepikaria %24** igo da, bankako negozio tipikoaren bilakaera ona agerian utzita. Bankako marjina errepikaria kalkulatzeko, bezeroen marjinari ustiapen-gastuak eta ohiko ustiapenaren beste emaitza batzuk kendu dizkiegu.

Kutxabaneko
ustiapen-gastuetan
%3ko murrizketa egon
da, kostuak gutxitzeko
eta baliabideak hobeto
erabiltzeko politika
eraginkorra erakutsita

**Kreditu- eta partaidetza-zorroaren eta saneamendu-
mailei** higiezin bidezko arriskua estaldurari dagokienez, zuhurtzia-maila gorenetan ibili gara, arrisku hauen narriadura eta aurreko urteetako ahaleginak gorabehera. Hala, bankako negozioaren emaitzen hobekuntzari eta partaidetuen zorroetik eratorritako beste diru-sarrerara batzuen ekarpenari esker, **zuzkitutakoa oraindik nabarmena da, hain zuzen ere, 479,3 milioi euro.** Kopuru horretan, 20015eko emaitzen pentzura aurrez erretiroa hartzeko hitzartutako planen kostu osoa sartuta dago. Hori guzti hori etekin **bateratua handitzeari**

utzi gabe egin da, izan ere, iaz 218,8 milioi eurokoa izan dena, hots, 2014an baino %45,5 gehiago.

NEGOZIO BOLUMENA 100.000 MILIOI EUROKO DA

Kutxabaneko **Aktibo osoa** 58.376 milioi eurokoa izan da, 2014ko abenduan aurkeztutakoa baino %1,7 gutxiago, oraindik sistemaren desapalankamenduaren eraginpean, erritmo motelagoan izan bada ere. Aktiboan, balantzearen %75 inguru bezeroentzako kredituei dagokie eta, pasiboan, berriz, bezeroen baliabideei. **Bezeroekiko Negozio Bolumena** 99.525 milioi eurokoa da, aurreko ekitaldian baino %0,3 gutxiago.

Bezeroen Baliabide kudeatuen kopurua, handizkako jaulkipena kontuan hartu gabe, 54.707 milioi eurokoa da, %3,1eko gehikuntzarekin. Hazkunde hori txikizkako sareek sustatuta, bereziki nabarmena izan da urteko bigarren seihilekoan merkatuetan izandako aldakortasuna kontuan hartzen badugu, eta 2014rekin alderatuta, modu negatiboan eragina izan du inbertsio-fondoan eta pentsioen balorazioetan. Edonola ere, **bezeroen gordailuek** (hipoteka-zedulak izan ezik) %1,3ko hazkundea izan dute, **ageriko gordailuen** jokaera bikainak lagunduta, %11ko igoerarekin.

Interes-tasak gutxieneko historikoetan dagoenean, bezeroen aldeko jarrerari eutsi diogu balantzez kanpoko produktuei dagokienez, errentagarritasun erakargarriagoen bila. Produktu horiek nabarmen hazi dira horren ondorioz: Inbertsio Fondoak (%11,1) eta, maila murriztagoan, Pentsio Planak (%2,0). Fondo-kudeaketan egindako lan bikainari esker, Kutxabank Taldeak Estatuko laugarren sozietate kudeatzaile handiena izateari eutsi dio.

Inbertsio-fondoan
eta pentsio-planen
bilakaerari esker,
Taldea laugarren
sozietate kudeatzaile
handiena da

Indarrean dauden eragiketen bolumenak amortizazioak konpentsatzea oraindik lortu ez badu ere, kreditu berriak kontratatuzeko erritmoa nabarmen biziagotu da.

Hala, Kutxabankek Kreditu Inbertsio Garbia 42.708 milioi eurokoa izan da 2015ean, hots, 2014ko abenduarekin alderatuta, %1,7 jaitsiera egon da. 2014an ordea, aurreko urtearekin alderatuta, jaitsiera handiagoa izan zen: -%4,9. Sustatzaileen kredituaren aurreko esposizioa nabarmen gutxitu eta zalantzazko aktiboen 1.000 milioi euroko jaitsiera adierazgarria egon arren, inbertsioa gutxiago murriztea lortu da, partikularrei eta enpresei eskainitako finantzazioaren gehikuntzan oinarrituta.

EKONOMIA ETA KONTSUMO SUSPERRIALDIA BIDEAN

2015ean, egoera ekonomiko orokorra hobetu zen eta **kontsumitzaileen konfiantza** apurka-apurka berreskuratu da. Horrekin batera, erakundearen helburu estrategikoa eman da: **inbertsioaren gehikuntza** finkatzea, partikularrei eta familiei nahiz enpresa txiki eta ertainei zuzendutako finantzazioa dinamizatuta. Horren ondorioz, kontratazio berrietan **bi digituetako gehikuntzak** izan dira.

Finantza-taldeak formalizatutako hipoteka-mailegu berrien zenbatekoa %38 handitu da.

Hazkunde honi esker, **merkatu-kuota hobetu** eta jatorriko lurraldeetan **lidergoa** sendotu da. Merkatuko erreferentziazko produktuak merkaturatzeak horretarako lagundu du: Euriborra + %1etik gorako hipoteka tasa aldakorrean; eta %2,50etik gorakoa, tasa finkoari dagokionez. Hipoteka-eskaintza handitzeko eta zabaltzeko asmoz, Kutxabankek hipoteka mistoa plazaratu du duela gutxi.

Igoera hauei **mailegu pertsonalen** bilakaera ona gehitu zaie. Kutxabankek eskainitako kredituen diru-kopurua, guztira, 180 milioi eurokoa izan da, 2014an baino **%15** gehiago.

Bestetik, nabaria izan da bezeroek **kanal alternatiboetan** horrelako maileguak kontratatzerakoan erakutsitako konfiantza gero eta handiagoa. Adibidez, online bankak formalizatutako finantzazioa bikoiztu da.

 180 milioi euro
 2015ean aurrez
 emandako
 maileguetan,
 2014an baino
 %15 gehiago

Online Bankaren
 bitartez
 kontratatutako
 maileguetan
 9 milioi euro,
 2014an baino
 %110 gehiago

%66 GUTXITU DIRA ZALANTZAZKO AKTIBOEN SARRERAK

2015eko ekitaldiak argi konfirmatzen du 2014an hasi zen **morositatearen bilakaeraren** inflesioa. Zalantzazko bihurtutakoak %66 gutxitu ziren aurreko urtearekin alderatuta eta **zalantzazko aktiboen saldoa** ondoz ondoko zortzigarren hiruhilekoz jaitsi zen -1.000 milioi 2015ean- eta Taldeko **berandutza-ratioaren** etengabeko hobekuntza sustatzen du, abenduaren 31n %8,65; hain zuzen, 2014an baino oinarritzko 203 puntu gutxiago. Higiezin jarduerari lotutako berandutza salbuetsita, ratioa %5etik baino apur bat beherago egongo litzateke.

Horrekin guztiarekin **kreditu-kalitatearen mailari** eutsi diogula baieztatu da, finantza-sektorearen batez bestekotik baino askoz hobeto gaudelako. Izan ere, sektoreak %10,1eko berandutzarekin amaitu zuen abendua, egoiliarren beste sektore batzuentzako kredituei dagokionez.

KAUDIMENARI DAGOKIONEZ SEKTOREAREN BURUAN

Kutxabank Taldeko **Ondare Garbia** 2015eko amaieran 5.338 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino %6,2 gehiago. En 2014 entró en vigor la nueva normativa sobre capital (CRD IV / CRR) que transpone a la normativa comunitaria los acuerdos de **Basilea III**. Kapitalaren kopuruari eta kalitateari dagokionez exigenteagoa den araudi berri honetan, Taldeko **kaudimen-ratioak** 2015eko amaieran, sektoreko lehenengo artean daude, **kaudimen osoko koefizientea** %14,7koa eta **Core Tier I** ratioa %14,6koa izanik. **'Fully loaded'** bertsioan (kapitala behin-behineko zenbaketaren arauak kontuan hartu gabe kalkulatzea) honako indizea **%14,3koa** da. Bestetik, **palanka-efektuaren ratioa %7,7koa** da, sektoreko batz bestekoa baino askoz hobeto.

Kopuru on hauei esker Kutxabank Taldea **finantza-sistemako erakunde kapitalizatuenetakoa da oraindik**. Posizio sendo hori kapitala sortzeko barne-gaitasunari esker lortu du, inolako laguntza publikotara jo behar izan gabe, ezta merkatuan ipinitako tresna hibridotara edo bezeroengana ere. Hala, Bankaren Europako **Agintaritzak Gardentasunari** buruz 2015ean egindako Ariketan, Kutxabank **izan da berriro ere Espainiako finantza-sektorearen buruan kaudimenari dagokionez**.

2015eko abenduan ezagutu dira **CT1 kapitalari** buruzko errekerimenduak. Europako Banku Zentralak agintzen dizkie ikuskatutako erakundeei. Kutxabanki dagokionez, zenbateko hori **%9,05ekoa da, Espainiako finantza-sistemaren bigarren txikiena**.

2. FINANTZA ERRESKATEA DELA ETA.

2015eko maiatzean, Espainiako Bankuak ohar informatiboa zabaldu zuen Espainiako banka-sistema berregituratzeko prozesuaren diru-laguntza publikoen inguruan, 2009 eta 2015 arteko aldiari dagokionez.

Informazio-ohar horrek honako alderdiak ukitzen ditu:

- 1 erakundeak berkapitalizatzeko ordaindutako finantza-laguntzak
- 2 **Kreditu Erakundeetako Gordailuen Bermerako Fondoaren (FGDEC)** ekarpenak, tresna hibridoak kudeatzetik eratorritako kotizatu gabeko akzioak erosteko
- 3 abalak, bermeak eta Aktiboen gutunak Babesteko Eskemak s (EPA)
- 4 finantza-erakundeei emandako kreditu-lineak
- 5 Banka Berregituratzetik Eratorritako Higiezinaren Aktiboak Kudeatzeko Sozietateari (SAREB) kapital publikoaren ekarpena egin zioten, Banka Berregituraketa Antolatuaeren fondoaren (FROB) bitartez

KOPURU OROKORRAK

2009ko maiatzetik, Espainiako **banka-sistema berregituratzeko** Estatuak emandako fondo publikoen bidezko laguntzetan **53.553 milioi euro** bildu dira. Orain arte, **2.666 milioi euro berreskuratu dira**. Kopuru horri **1.304 milioi gehitu behar** zaizkio, BFAk Bankian egindako desinbertsiotik lortutakoak. Bestetik, Caja 3eko eta CEISSeko obligazio bihurtgarrien **1.011 milioi** euro 2018 baino lehen amortizatzea aurreikusita dago.

Gainera, **FROBek bermeak eman dizkio erosleari** erakundeen salmentetan. Horietatik aktiboak babesteko eskemak nabarmentzen dira. EPAn itxarotako galera **1.039 milioi eurotaraino** heltzen zen. Emandako beste berme batzuk **1.553 milioikoak** izan dira. Horietatik 729 milioi itzuli dira.

Kreditu-erakundeei emandako **abalak 110.895 milioi eurokoak** dira, eta 105.641 milioi euro kitatu dira.

FGDEC, kreditu-erakundeek ekarpenez erabat finantzatua, **7.942 milioi euro** eman ditu kapital-era desberdinetan hitzartutako laguntzetan, FROBek 2009an egindako **2.250 milioi euroko** ekarpenarekin batera. Bestetik, FROBen kontrolpeko kotizatu gabeko erakundeek akzioak eskuratu ditu inbertsiogile txikizkarien bitartez, tresna hibridoak trukatzeko prozesuetan. Eragiketa hori 1.803 milioi eurokoa izan da. Akzio horiek 673 milioitan saldu dira.

Erakundeak saltzeko prozesuetan **erosleari emandako bermeei dagokienez**, FGDECek erosleari bermeak eman dizkio. Aurreikusitako galera **8.176 milioi eurokoa** da.

Banka Sektoreaz kanpo, FROBek **2.192 milioi euro eman dizkio SAREB sozietateari**.

Kutxabankek ez du diru-laguntza publikorik jaso eta Gordailuen Berme Fondoari nahiz SAREB sozietateari egindako ekarpenaren bitartez, **finantza-sektorearen birmoldaketa sustatu du**.

**ESPAINIAKO BANKA SISTEMAREN BERREGITURAKETA (2009-2015):
BIRKAPITALIZATZEKO FINANTZA LAGUNTZA PUBLIKOAK:**

Lagundutako erakunde kideak	Laguntza publikoak (milioi €)*
GUZTIRA	61.495
CAIXABANKEN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:	
Banca Cívica: Caja Navarra, Caja Canarias, Caja Burgos, Caja Sol + Caja Guadalajara	977
Banco de Valencia	5.498
BBVAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:	
UNNIM: Caixa Sabadell, Caixa Terrasa, Caixa Manlleu	953
CATALUNYA CAIXA: Caixa Catalunya, Caixa Tarragona, Caixa Manresa	12.052
IBERCAJAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:	
Caja 3: CAI, Caja Círculo de Burgos, Caja Badajoz	407
BANCO SABADELLEN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:	
CAM	5.249
Banco Gallego	245
UNICAJA BANCOREKIN BATEGITEKO PROZESUAN DAUDEN ERAKUNDEAK	
Caja España, Caja Duero, Banco CEISS	1.129
LIBERBANKENSARTUTAKO ERAKUNDEAK	
Cajastur, CCM, Caja Cantabria, Caja Extremadura	1.864

Lagundutako erakunde kideak	Laguntza publikoak (milioi €)*
BANCO MARE NOSTRUMEN SARTUTAKO ERAKUNDEAK	
Caja Murcia, Caixa Penedés, Sa Nostra, Caja Granada	1.645
BFAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK	
Caja Madrid, Bancaja, Caja Ávila, Caja Segovia, Caja Rioja, Caixa Laietana, Caja Insular de Canarias. Bankia BFaren %100eko filial gisa eratu da.	22.424
NCG BANCO - NOVACAIXAGALICIAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK	
Caixa Galicia, Caixanova	9.052

■ 0 taldea: erresistentzia-proban (2012) kapitalaren defizitik ez edukitzeaz gain, ondorengo erabakirik hartu behar ez zuten erakundeak.

■ 1. taldea: FROBek hasieran kontrolatutako bankuak (BFA/Bankia, Catalunya Banc, NCG Banco eta Banco de Valencia). Horren baitan BMN dago, hasieran 2 taldekoa zen arren.

■ 2 taldea: erresistentzia-proban (2012) kapitalaren defizita izandako bankuak, estatuaren laguntzarik gabe aurre egin ezinik.

* FGDEC capital-ek eta beste batzuk (1) FROB 1ek, FROB 2k eta 9/2012 Legearen ondorengoak (2) emandako/hitzartutako laguntzak guztira.

(1) 38.833 milioiko ekarpenak, Finantza Asistentziako Programaren barruan: 9/2012 Legearen ondorengo 37.943 milioi kapitaleko ekarpenetan, gehi 1.135 milioi euro CoCosetik, ken 245 milioi Banco Gallegorentzako kapitalerako ekarpenetik, MEDE fondoetatik heldu ez zelako.

(2) Kreditu Erakundeen Gordailuen Bermerako Fondoa (FGDEC) atxikitako erakundeek urtero egindako ekarpenez osatuta dago, hartutako gordailuen arabera.



kutxabank
hemen
eta orain

